



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduak 3
Vitoria-Gasteiz, 3 de diciembre de 2019

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

IVAP-EK ETA IZENPEK ELKARLANEAN JARDUNGO DUTE LANGILEAK HAUTATZEKO PROZESU PUBLIKOETAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN IDENTIFIKAZIO ELEKTRONIKORAKO

- **Helburua da hautaketa-prozesuetara aurkezten diren pertsonen izapideak arindu eta sinplifikatzea**

Gobernu Kontseiluak baimena eman dio IVAPen (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) eta Izenpe SAREN (Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa) arteko lankidetzaren bitartez, lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetan identifikazio elektronikorako baliabideak zabaltzeko. Helburua da administrazio publikoek IVAPen bidez langileak hautatzeko egiten dituzten prozesuak arinagoak eta gardenagoak izatea eta, hala, administrazio-izapideak sinplifikatzeko gizarreak egiten dituen eskariei erantzutea.

Hitzarmenak hautaketa-prozesura aurkezten diren pertsonak identifikatzeko bi baliabide jaso ditu: **aldi baterako pasahitza** edo **BakQ** ziurtapena. IVAPek baimena eskatuko du, beti, Izenpe SARI datu pertsonalen berri emateko. Datu pertsonalen konfidentzialtasuna gordeko du, eta datu horiek ahalik eta segurtasun gehienarekin tratatuko ditu. Gainera, ezingo dizkio datu pertsonalak hirugarren bati eman, eta suntsitu egingo ditu, enkargua amaitu ondoren.

Lankidetzaren arabera, Izenpe SAK IVAPeko identitate digitalak sortzeko eta egiaztatzeko langile arduradunei emango die prestakuntza, eta haien esku beharrezko softwarea jarriko du. Hala, IVAPek hautaketa-prozesuetako hautagaien identitatea egiaztatu ahaliko du eta, horretarako, prozesuaren eraginkortasunean, kalitatean, segurtasunean eta gardentasunean oinarritu.

IVAPen eta Izenpe SAREN arteko lankidetzaren bitarteko hitzarmenak 4 urteko iraupena du, baina luzatu edo eten ahaliko da, alde bietan adosten dutenean.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK ONIRITZIA EMAN DIO MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN LEGEAREN PROIEKTUARI, ETA EUSKO LEGEBILTZARRARI HELARAZI DIO, ONAR DEZAN

Eusko Jaurlaritzak oniritzia eman dio Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak landutako Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legearen Proiektuari. Horren ondorioz, fase berri bat hasiko da, eta testua Legebiltzarrari igorriko zaio, hark onar dezan.

Mugikortasun jasangarria ibilgailu pribatuaren erabilera masiboak eragindako eta petrolioaren deribatuen errekuntzaren erabilerak bultzatutako gizarte- eta ingurumen-arazoei erantzuteko premiaren ondorioz sortu den kontzeptua da. Euskadik ez du zerotik hasi behar, baina egungo ereduaren kostu sozialak, ingurumen-kostuak eta kostu ekonomikoak murrizten eta jasangarritasunean oinarrituta egongo den mugikortasun baterantz aurrera egiten lagunduko duten alternatibak aurkitu behar ditu.

Ildo horretan, Proiektua hainbat agente sektorialekin eta hainbat administrazio-mailarekin eta Euskadiko Garraio Agintaritzaren (EGA) koordinaziopean lantzeko eta kontrastatzeko fasea osatu da, eta seguruenik etorkizuneko mugikortasun-eredu modernoagoaren eta efizienteagoaren inplementazioan jauzi kualitatibo bat ematen eraginkortasunik handienarekin lagunduko duen tresna izango denaren (hots, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legearen) legebiltzar-prozesua hasi da.

Horrela, beraz, garraioaren efizientzia optimizatzeko pentsatutako plangintza integratu eta multimodal bat lantzen ari da, honako printzipio hauekin:

- **Eskubide indibidualak eta kolektiboak**: erabiltzaileentzako garraio-sistema integratu, efiziente, seguru eta inklusibo bat behar da.
- **Kostu sozial eta ingurumen-kostu txikiagoa izango duten eta klimaldaketari aurre egingo dioten garraio bideen lehentasuna**. Garraio publiko eta kolektiboaren eta inpakturik gabeko beste modu batzuen (bizikleta, ibiltzea eta abar) sustapena, pertsonen osasuna babesteko baliabideak diren heinean.
- **Teknologia berrien eta berrikuntzaren aplikazioa garraio- eta azpiegitura-zerbitzuan**. Gizarte-interesaren defentsa, gutxien kutsatzen duten garraio publikoen efizientiaren bidez.

5 helburu ditu:

- Sistema integratu, koordinatu eta bikoiztasunik gabeko bat sortzea.
- Administrazioen arteko harremanetarako eta egitura-plangintzarako sistema bat egituratzea.
- Emisiorik gabeko garraio publiko kolektiboari lehentasuna ematea.

- Trenbide-sarea garraio-eskaintzaren egitura-ardatz gisa bultzatzea, eta errepide bidezko garraioa, berriz, osagarri gisa.
- Konektibitatearen bidez lurralde-oreka eta sare ekonomikoaren lehiakortasuna bultzatzea.

Mugikortasun jasangarriko planak

Arestian deskribatu ditugun eta mugikortasun jasangarriaren eredu bat lortzera bideratuta dauden helburuak eta printzipioak biltzen dituzten tresnak dira, estrategien, jarraibideen, ekintzen edo jarduteko alternatiben plangintza barne. 3 jarduketa-maila finkatu dira:

- **Euskadiko Mugikortasun eta Garraio Jasangarrirako Plana:** koordinazio eta integrazio intermodalean oinarritutako garraio-politika bat eta Euskadi osoko administrazio-koordinaziorako irizpideak ezartzeko esparru estrategikoa da.
- **Lurralde historikoetako mugikortasun jasangarrirako planak:** ezarritako printzipioak eta helburuak garatzen dituzte beren esparru geografikoan.
- **Hiri-mugikortasun jasangarrirako planak:** udal-jardueraren plangintza egiteko tresnak dira. 5.000 biztanletik gorako udalerriek onartu beharko dituzte. Gainera, 20.000 biztanletik gorako udalerrien kasuan, udalerriko mugikortasunaren diagnostikoa eta bilakaera, eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak bilduko ditu Planak (era progresiboan, 2021. urtetik aurrera).

Jarraipena egiteko tresnak

Proiektuak **ebaluazio- eta jarraipen-adierazleak** biltzen ditu. Mugikortasun-plan guztiek (Euskadikoek, lurralde-planek, hiri-planek eta bizikleta-bideen planek) ondorengo adierazle neurgarriak bildu beharko dituzte, Europar Batasunean finkatutako estandarretan oinarrituta. Berotegi-efektuko gasen emisioak.

- Ingurumen- eta lurralde-inpaktua.
- Irisgarritasuna.
- Intermodalitatea.
- Bide-segurtasuna.
- Osasunaren gaineko inpaktua.
- Planaren inpaktu ekonomikoa, eta kostuak finantzatzeko sistemak.
- Zerbitzuen kalitatea eta efizientzia.
- Garraioaren kostu sozialen neurketa plangintza-esparruan.

Bestalde, EGAK Euskadiko Mugikortasun Jasangarriari buruzko Txostena landuko du urtean behin, eta, bertan, garraio publikoko sistemen finantzaketa-iturriak eta kostuak aztertuko ditu, baita gizarte- eta ingurumen-ondorio positiboak eta negatiboak ere.

Mugikortasun jasangarrian eragina duten **azpiegituren plangintza** egiteko prozeduran, administrazio sustatzaileak honako hauek ebaluatuko ditu:

- azpiegitura horiek beren bizitza erabilgarri osoan duten inpaktua, garraio-zerbitzu berrien eskaintzaren eta gizarte-eskariaren ikuspegitik.
- mugikortasun jasangarrian duten eragina eta mugikortasun jasangarriari egiten dioten ekarpena.
- azterketa ekonomiko-finantzarioa.
- Euskadiko garraio publikoaren sistema osoan lortutako integrazio funtzionala.

Emaitzazko ebaluazioa planaren espedientearen parte izango da, eta haren premia eta jasangarritasuna adieraziko du, kostu sozialen, kostu ekonomikoen eta ingurumen-kostuen ikuspegitik.

Mugikortasunaren kudeaketa

Garraioaren Lurralde Agintaritza bakoitzak, sortutako tresnari jarraikiz eta kudeaketa-sistema operatiboen arduraduna den neurrian, erabiltzaileek ordaindu beharreko **tarifak** proposatuko ditu. Nolanahi ere, EAEk eta EGAK tarifa-sistema bakar eta integratu bat sustatuko dute, Legean ezarritakoari jarraikiz.

Zerbitzu-planak: garraio-zerbitzuen eskaintzaren programazioa administrazio eskudunak egingo du aplikatu beharreko araudi sektorialari jarraikiz, eta honako alderdi hauek bildu beharko ditu:

- Eremu geografikoaren eta, hala badagokio, eremu bakoitzeko zonen zehaztapena.
- Egungo beste zerbitzu batzuekin koordinatzeko eta osatzeko irizpideak, eta beste zerbitzu batzuen eskaintzarik ez dagoela aztertzea.
- Garraio-moduen arteko intermodalitate-puntuen finkapena, kudeaketa-ereduaren azalpena, ustiapen ekonomikoa eta planifikatutako zerbitzuen tarifak.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

8,5 MILIOI EUROREN LAGUNTZAK IRAGARRI DIRA ARDOGINTZAKO PRODUKTUAK KANPOAN SUSTATZEKO EKINTZETARAKO

- 2016tik, guztira 136 enpresa baliatu dira finantzaketa horretaz, eta inbertsioak 68,2 milioi baino gehiagokoak izan dira, horietatik 32,3 milioi inguru dirulaguntzatik etorriak.
- Kanpoan sustatzeko ekintzen babesa bereziki garrantzitsua da, Brexitak eta Ipar Amerikako muga zergen mehatxuak planteatutako ziurgabetasunagatik.
- Eusko Jaurlaritzak sektoreari laguntzeko estrategia indartu du, eta, beste neurri batzuen artean, ARDOA Basque Wine Office bikaintasunerako laguntza bulegoa jarri du abian

Hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuen informaziorako eta sustapenerako 2020ko maiatzaren 1etik 2021ko apirilaren 30era bitartean ekintzak eta programak garatzeko laguntzak iragartzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eman duen agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak bere azken kontseilu bileran. Kalkulatzen da 2020-2021 kanpainian enpresek 21 milioi euro gastatuko dituztela, hau da, aurreko ekitaldian baino pixka bat gehiago, eta diru horretatik %40 baino gehiago (8,5 milioi) fondo publikoetatik etorriko direla.

2016tik, guztira 139 enpresa baliatu dira laguntza horietaz. Egin diren inbertsioak, berriz, 6,82 milioi eurokoak baino handiagoak izan dira, eta kopuru horretatik 32,3 milioi inguru dirulaguntzak izan dira.

Lehiakortasuna handitzea

Helburua da ardoa gure mugetatik haratago sustatzea eta sektorean inbertsioak egiten laguntzea, merkatuaren eskarrietara hobeto egokitzeko eta Euskadiko nekazaritzako elikagaien sektorean eta, beraz, Euskadiko ekonomian ere zati nagusi diren enpresa hauen lehiakortasuna eta etekin globala areagotzeko. **Kanpoan sustatzeko ekintzen babesa bereziki garrantzitsua da gauden egoeran, Brexitak eta Ipar Amerikako muga zergek planteatutako ziurgabetasuna dela-eta.**

Urteko lehen sei hilabeteetan euskal ardoen esportazioek eduki duten portaerari buruz dauden datuen arabera, azpimarratzekoa da ardo zurien salmentaren igoera, bai bolumenean, bai prezioan, nazioarteko merkatuan gero eta gehiago eskatzen baitira. Ardo horien esportazioek gora egin zuten bolumenean zein balioan. Bereziki ona izan zen ardo horiek merkatu garrantzitsuetan eduki zuten bilakaera, esaterako, Kanadan, Estatu Batuetan,

Irlandan eta Erresuma Batuan, non Brexit aurreko ziurgabetasuna gorabehera mantendu egiten diren.

Eusko Jaurlaritzatik, **gogor ari gara lanean gure kalitateko elikagaien posizionamendua sustatzeko**, tartean ardoarena, kalitateko produktuen artean leku nabarmenean baitago, merkatuko gama ertain-altuan, kontsumitzaile exijenteen eta informatuen premiak asetu nahian. Enpresak ere ahalegin handia egiten ari dira zentzu horretan, beren produktuaren kalitatea eta bereizgarriak landuz, eta horretarako gure babesak dute, bai babes instituzionala, bai antolakuntzako eta finantzarioa.

Laguntza lerro horiek **Gastronomiaren eta Elikaduraren Plan Estrategikoan (PEGA)** daude jasota, eta ardogintza eta mahastizaintzako sektorerara zehazki bideratutako laguntzen artean azpimarratzekoak dira **ARDOA Basque Wine Office bulegoaren abian jartzekoak eta merkatu estatubatuarrerako esportazioei eusteko eta merkatuak dibertsifikatzeko hainbat ekintza garatzekoak, tartean alderantzizko misioak indartzea eta nazioarteko azoketan parte hartzea helburu dutenak.**

Laguntza finantzarioa

Laguntza finantzarioen artean azpimarratzekoak dira gaur onartu dena, hirugarren herrialdeetan produktu hauek sustatzeko eta ezagutarazteko programei zuzendutakoak: ardoak, likore ardoak, ardo apardunak, kalitateko ardo apardun aromatikoak, ardo txinpartadunak, ardo txinpartadun gasdunak, mahaspasa bihurtutako mahatsen ardoak, gehiegi heldutako mahatsen ardoak eta ekoizpen ekologikotik datozen ardoak. Produktu horiek esportatzeko aukerak eduki behar dituzte edo hirugarren herrialdeetan merkaturatzeko bide berriak, eta kontsumo zuzenera bideratuta egon behar dira. Gainera, kategoria hauetako batekoak izan behar dira: Jatorri Izendapen babestuko ardoa, Adierazpen Geografiko Babestuko ardoa, edo Ardotarako mahats aldaeraren izena adierazita duen ardoa.

Hauek dira diruz lagundu daitezkeen ekintzak eta jarduerak:

- Harreman publikoak eta sustapen eta publizitate neurriak, bereziki erkidegoko produktuek kalitateari, elikagaien segurtasunari eta ingurumenari dagokienez dituzten abantailak nabarmentzeko direnak.
- Nazioartean garrantzitsuak diren agerraldi, azoka eta erakusketetan parte hartzea.
- Informazio kanpainak, bereziki jatorri izendapenen gaineko erkidegoko sistemen gainean, eta adierazpen geografikoen eta ekoizpen ekologikoen gainean.
- Merkatu berrien azterketak, irteera komertzial berriak bilatzeko beharrezkoak direnak.
- Sustapen eta informazio neurrien emaitzen ebaluazioa

Hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuak sustatzeko eta ezagutarazteko ekintza eta programetarako laguntzak iragartzen diren agindua 2010ko urtarrilaren 15ean argitaratuko da eta egun horren biharamunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira laguntzetarako eskariak.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK 4 MILIOI EURO HANDITU DU EMAITEK PLUS PROGRAMARAKO PARTIDA

- **Aurtengo deialdirako aurrez bideratutako zenbatekoari (61.260.000 euro) gehitu zaizkio, eta guztira 65.260.000 euro dira**
- **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko zentro teknologikoei eta IKZeizuzenduta daude laguntzak**
- **Emaitek Plus programa Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetzak sustatzen du**

Gobernu Kontseiluak onartu egin du gaur 4 milioi euro handitzea (**65 milioi 260 mila eurora** iritsi arte) Emaitek Plus laguntza-programara bideratutako baliabideak. Programak helburu du laguntzea Foku Anitzeko Teknologia Zentroen jarduera ez-ekonomikoari, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko IKZ Ikerketa Kooperatiboko Zentroei. Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetzak sustatutako laguntza-ildo horren bidez esleitzen zaie finantzaketa, beren jardueraren emaitzak maila globalean ebaluatu eta aztertu ondoren.

2019ko deialdia publiko egin zenean, joan den irailaren 11n, iragarri zen 61.260.000,00 euro bideratuko zirela programa horretara, eta zenbateko hori alda zitekeela laguntzak ebatzi aurretik, agortu gabeko aurrekontu-baliabideen arabera. Gaur onartutako gehikuntzarekin, **Eusko Jaurlaritzak Emaitek Plus programara bideratuko dituen baliabideak 65.260.000 eurokoak izango dira**, eta, agindu erregulatuaren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, bi zenbatekotan banatuko dira: bata Foku Anitzeko Teknologia Zentroetara bideratuko da, eta bestea IKZ Ikerketa Kooperatiboko Zentroetara.

Foku Anitzeko Teknologia Zentroetarako: 49.685.000 euro.

Foku Anitzeko Teknologia Zentroetarako, hasiera batean, 45.945.000 euro bideratu ziren. Zenbateko hori, era berean, jarraian zehazten den bezala azpibanatu zen:

§ Emaitezara bideratutako zentroaren ereduarekiko egokitzapen-maila: 44.567.000 euro.

§ 2020rako finkatutako adierazleen aginte-taulako helburuak lortzeko zentroen jardun-planak: 1.378.000 euro.

Gaur onartutako gehikuntzarekin, 3.740.000 euro gehiago bideratzen zaizkio, eta horiek, era berean, ondoren zehazten den bezala azpibanatzen dira: emaitzetara bideratutako zentroaren ereduarekiko egokitzapen-maila,

3.627.000 euro; eta 2020rako finkatutako adierazleen aginte-taulako helburuak lortzeko zentroen jardun-planak, 113.000 euro.

Hala, foku Anitzeko Teknologia Zentroetarako Emaitek Plus laguntzen guztizko zenbatekoa 49.685.000 eurokoa izango da.

IKZ Ikerketa Kooperatiboko Zentroetarako: 15.575.000 euro.

IKZ Ikerketa Kooperatiboko Zentroetarako, hasierako zenbatekoa 15.315.000 euro zen, eta zenbateko hori, era berean, honela azpibanatu zen:

§ Emaitezara bideratutako zentroaren ereduarekiko egokitzapen-maila: 14.856.000 euro.

§ 2020rako finkatutako adierazleen aginte-taulako helburuak lortzeko zentroen jardun-planak: 459.000 euro.

Gaur, Gobernu Kontseiluak 260.000 euroko gehikuntza onartu du. Gehikuntza hori, era berean, ondoren zehazten den bezala azpibanatzen da: emaitzetara bideratutako zentroaren ereduarekiko egokitzapen-maila, 252.000 euro; eta 2020rako finkatutako adierazleen aginte-taulako helburuak lortzeko zentroen jardun-planak, 8.000 euro.

IKZ Ikerketa Kooperatiboko Zentroetarako Emaitek Plus laguntza, guztira, 15.575.000 eurokoa izango da.

DEIALDIAREN ZENBATEKOA			
61.260.000			
FOKU ANITZEKO TEKNOLOGIA ZENTROAK		IKERKETA KOOPERATIBOKO ZENTROAK	
45.945.000		15.315.000	
ZENTROAREN EREDUAREKIKO EGOKITZAPEN-MAILA	2020RAKO JARDUNEN HELBURUAK	ZENTROAREN EREDUAREKIKO EGOKITZAPEN-MAILA	2020RAKO JARDUNEN HELBURUAK
44.567.000	1.378.000	14.856.000	459.000

HANDITZEAREN ZENBATEKOA			
4.000.000			
FOKU ANITZEKO TEKNOLOGIA ZENTROAK		IKERKETA KOOPERATIBOKO ZENTROAK	
3.740.000		260.000	
ZENTROAREN EREDUAREKIKO EGOKITZAPEN-MAILA	2020RAKO JARDUNEN HELBURUAK	ZENTROAREN EREDUAREKIKO EGOKITZAPEN-MAILA	2020RAKO JARDUNEN HELBURUAK
3.627.000	113.000	252.000	8.000

Araudia eta aurrekontu-egozpena

Emaitek Plus laguntza-programa araudi honek erregulatzen du: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko irailaren 16ko Agindua (2015eko urriaren 7ko EHAA, 191 zk.), honako hauek aldatzen dutena: Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko uztailaren 27ko Agindua (2017ko abuztuaren 18ko EHAA, 157 zk.) eta 2019ko uztailaren 18ko Agindua (2019ko abuztuaren 1eko EHAA, 145. zk.).

Ogasun eta Ekonomia

EUSKO JAURLARITZAK ZOR PUBLIKOAREN 597 MILIOIREN AMORTIZAZIOA AURRERATU DU

Eusko Jaurlaritzak Zor Publikoko 597 milioiren amortizazio aurreratua baimendu du; horietatik 521,5M Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagozkio eta 75,5M Alokabideren maileguei.

Horrek zorpetzea murrizteko Eusko Jaurlaritzaren politikari erantzuten dio, eta zorra urte amaierarako gutxi gorabehera 9.500 milioi eurora arte murrizten du, kopuru finkatuetan. Zorrak berriki izan duen bilakaeraren ondorioz, Estatuan zorpetze txikiena duen autonomia-erkidegoa gara.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Legeak ezartzen duenez, aurrekontu-likidazioan superabita lortzen bada, superabit hori zorpetze garbia murriztera bideratuko da.

Ogasun eta Ekonomia

JAURLARITZAK URTERO HARTUKO DU BERE GAIN BETEARAZPEN-BIDEAN EGINGO DEN UPV/EHU-REN DIRU-SARREREN BILKETA

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du UPV/EHUren eta Ogasun eta Ekonomia Sailaren arteko kudeaketa-mandatuko hitzarmena luzatzea. Hitzarmen hori 2018ko apirilean formalizatu zen, unibertsitate horren zuzenbide publikoko diru-sarrerak betearazpen-bidean biltzeko.

Hitzarmen horretan adierazten da UPV/EHUK ez duela behar besteko baliabiderik zuzenbide publikoko bere baliabideak kobratzeko premiamendu-prozedura administratiboaren bidez. Hori dela eta, behar besteko bitarteko horiek dituen eta diru-bilketaren kudeaketaren efizientzia hobetzeko gauza izango den erakunde bati agindu beharko zaio kobratzeko jarduera hori egitea.

Ondorio horietarako, Ekonomia eta Ogasun Sailak, Finantza Politikako Zuzendaritzaren bidez, kudeatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren zuzenbide publikoko diru-sarreraren betearazpen-aldiko diru-bilketa. Gainera, UPV/EHUren premiei beharrezkoa den administrazioko arrazionalizazioez, eraginkortasunez eta arintasunez erantzuteko beharrezkoak diren antolaketa eta baliabideak ditu.

Aipatutako mandatu horren aplikazio-esparruaren barruan sartzen diren zorren betearazpen-bideko diru-bilketaren kudeaketa Estatu osoan egin behar da, eta, horren indarrez, Ogasun eta Ekonomia Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aldeko kredituen nahitaezko diru-bilketarako erabilitako informazio-baliabide eta prozedura tekniko berak erabiliko ditu.

Mandatuko hitzarmenaren estipulazioetan honako funtzio-banaketa hau aurreikusten da:

UPV/EHUri dagokio: bildu beharreko zorren likidazioekin lotzen diren errekurtsioak eta gorabeherak ebaztea; premiamendu-probidentziak ematea eta horien kopia Gobernuari bidaltzea, zordunak zerrendatuta; jarritako berraztertze errekurtsioak ebaztea; kreditu kobraezinen deklarazioa erabakitzea; bidegabe kobratutako zenbatekoak itzultzea; errekurtsioei dagozkien kobrantza-eskubideak defendatzea; eta emandako egintzetan eragina duten epai judizialak betearaztea.

Ogasun eta Ekonomia Sailari dagokio: premiamendu-prozedurako jardunak egitea; Unibertsitateak emandako premiamendu-probidentziak zordunei jakinaraztea; bahituen inguruko premiamendu-prozedurako jardunak egitea; zordunen ondasunei, kredituei eta eskubideei buruzko informazioa eskatzea; bermeak Zerga-bilketako Erregelamenduaren arabera betearaztea; geroratze-eta zatikatze-eskaerak ebaztea; premiamendu-bidean bildutako zorren

berandutze-interesak likidatzea; kreditu kobraezinen deklarazioa eta birgaitzea proposatzea; premiamendu-prozeduran hirugarrengotzak ebaztea; premiamendu-prozedura eteteko eskaerak tramitatzea eta ebaztea; eta, hala badagokio, UPV/EHUri administrazio-egintza eman dezala proposatzea.

Ogasun eta Ekonomia Sailak, konpentsazio ekonomikoa jasoko du betearazpen-aldian egindako diru-bilketako zerbitzuagatik; bildutako zenbateko osoaren % 14ren zenbateko baliokidea jasoko du.

Kudeaketa-mandatuko hitzarmen hori automatikoki luzatuko da urtez urte, aldeetako batek mugaeguna baino hiru hilabete lehenago, gutxienez, denuntziatzen ez badu.

Hezkuntza

UPV/EHUrekin ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEAREKIN SINATUTAKO KONTRATU-PROGRAMEN 2019ko FINANTZIAZIOA 175.000 EUROAN HANDITZEA

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, 175.000 eurotan handitzea UPV/EHUri eta Mondragon Unibertsitateari unibertsitate horiekin sinatutako Bikaintasun Ikerketarako Kontratu-Programen 2019. urterako emandako finantzaketa. Zehazki, 100.000 euroan handituko zaio UPV/EHUri, eta 75.000 euroan Mondragon Unibertsitateari.

Hezkuntza Sailak eta aipaturiko unibertsitateek sinaturiko Bikaintasuneko Ikerketa Kontratu-programek hiru helburu estrategiko lortu nahi ditu:

- I+G+b-n giza baliabideak sustatzea
- Ikerketa-jarduera sustatzea
- Ikerketa-azpiegiturak zabaltzea.

Gaurko bileran onartu den igoseraren bidez, helburu horiei loturiko jarduerak finantzatu nahi dira, eta jarduera horiek “Erronka Programaren” jarduerarantzekin konkretatzen dira. Unibertsitate batak zein bestek, Ezagutza Poloak aktibatzen eta dinamizatzen jarduerak burutzeko planteatzen dute aipaturiko programaren baitan.

2019-2022 aldirako Kontratu-Programak

2019ko uztailean, eta 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Planaren baitan, Hezkuntza Sailak hiru Kontratu-Programa sinatu zituen Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateetako bakoitzarekin. Orotara 200 milioi euro baino gehiagoko finantzazioa (200.086.186 €) jasotzen da lau urterako (2019-2022):

- “Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea” Programa-Kontratua.
- “Bikaintasun-ikerketa” Programa-Kontratua.
- “Prestakuntza eta Nazioartekotzea” Programa-Kontratua.

Kontratu-Programak unibertsitateak finantzatzeko tresna bat dira. Unibertsitate bakoitzaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean adostutako irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa hobetzeko helburuak lortzeko baldintzatzen du finantzaketa hori. Unibertsitate-politikako tresnak dira, eta aparteko baliabide ekonomikoak helarazten dizkiete goi-mailako hezkuntza-zentroei. Hauek jasotzea, aldean artean adostutako helburu estrategikoak betetzearen baldintzapean dago.

Hezkuntza

100.000 EUROKO DIRULAGUNTZA AIC–AUTOMOTIVE INTELLIGENCE CENTER FUNDAZIOARI

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran adostu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 100.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea AIC-Automotive Intelligence Center Fundazioari. Laguntza hau alde biek (Hezkuntza Sailak eta AIC Fundazioak) 2018ko azaroan sinaturiko hitzarmena betez eman da.

AIC-Automotive Intelligence Center automozioaren sektorean balorea sortzeko zentro bat da, eta gainera Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologiaren eremuko unibertsitate-prestakuntzarako 4Gune Klusterreko kide. Kluster hau, Hezkuntza Sailak bultzatzen duen Unibertsitatea+Enpresa Euskal Estrategiaren emaitza da.

Klusterrak dituen helburuen artean, eta beraz, AIC- Automotive Intelligence Center-ek ere partekatzen dituenak, honako hauek aurki ditzakegu: unibertsitate prestakuntza Espezializazio Adimentsuko RIS3 Estrategiarekin lerrokatzea erraztea; Euskadiko unibertsitateen arteko koordinazioa bultzatzea eta hobetzea; eta unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremanak sustatzea.

Horrela bada, eta aipaturiko helburuekin bat, AIC-Automotive Intelligence Center-en Amorebieta-Etxanoko egoitzan dago lehen Enpresa+Unibertsitatea Gela. Gune hau unibertsitate-errealitatearen eta enpresa-ingurunearen arteko hurbilketaren adibide bikaina da, ikasleen trebakuntza hobe eta enplegarritasun handiagoaren mesederako. Gela honetan, arazo errealei aurre eginez hobetzen dute euren prestakuntza unibertsitate-ikasleek. Fakultate edo eskola teknikoetan jasoriko ezagutza, enpresetako eguneroko erronketara eramatean datza prestakuntza.

Unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetzak bultzatzearekin lotutako oinarrizko helburuak lortzeko sinatu zen aurrerago aipatutako hitzarmena, eta, hori betez eman zaio dirulaguntza AIC-Automotive Intelligence Center Fundazioari.

Hezkuntza

100.000 EURO EUSKAMPUS FUNDAZIOARI, ERRONKA PROGRAMAREN BAITAN JASORIKO EKINTZAK BURUTZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, Euskampus Fundazioari 100.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea. Laguntza hau, Erronka programaren baitan Ezagutza Poloak eta lankidetzan aritzeko dinamikak indartzeko eta dibertsifikatzeko jardueretara bideratuko da.

RIS3 (Especializazio Adimentsuko Estrategia) eta 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren eremuko programa gako bat da Erronka programa. Unibertsitate-sistematik lankidetzaproiektuak sortu eta artikulatzeko alde zurreko fasearen ondoriozko gastuak finantzatzea du helburu. Proiektu horiek, artikulatu eta ondu ondoren, Europako, estatuko eta Euskadiko administrazioen deialdietara aurkeztuko dira. Programa honen helburuen artean nabarmentzekoak dira, besteak beste, honako hauek: unibertsitatetik enpresarako transferentzia teknologikoa sustatzea; edo Euskadiko eragileen parte hartzea bultzatzea H2020ren gisako nazioarteko programetan, erronka globalak konpontzeko ikuspegiaren aldeko apustu sendoa eginez.

Euskampus Fundazioa 2011n jaio zen, Euskadi sozialki, ekonomikoki eta kulturalki eraldatzeko prozesuan elementu traktore izateko helburuz, nazioarte mailan garrantzi handikoa izango den prestakuntza-, ikerketa-, transferentzia- eta berrikuntza-polo bat eratuz eta nazioarteko dimentsioa izango duen campus akademiko bat finkatuz.

UPV/EHU, Tecnalia eta Donostia International Physics Center (DIPC) dira Euskampus Fundazioaren sortzaileak. Era beran, fundazioaren patronatuko kide dira: Ormazabal-Velatia Taldea, CAF, Kutxabank, Ikerbasque eta Bordeleko Unibertsitatea.

Kultura eta Hizkuntza Politika

GOBERNU KONTSEILUAK BAT EGIN DU EUSKO JAURLARITZAK BERAK, ARABAKO, BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO FORU-ALDUNDIEK, GASTEIZKO, BILBOKO ETA DONOSTIAKO UDALEK, EUDELEK ETA UEMAK EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA ADOSTU DUTEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREKIN

- **Testua gaur arratsaldean egingo den Euskararen Nazioarteko Egunaren ekitaldi ofizialean irakurriko da, Bilboko Euskalduna Jauregian**

Gobernu Kontseiluak bat egin du, bere gaurko saioan, Eusko Jaurlaritzak berak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek, Gasteizko, Bilboko eta Donostiako udalek, EUDELEK eta UEMAK Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta adostu duten adierazpen instituzionalarekin. 'Bide berriak, modu berriak. Ongi etorri etorkizunera' du izenburu, eta bertan erakunde hauek nabarmendu dute ezinbestekoa dela euskara "etengabe eguneratzea, eraberritzea eta irudimenez biziagotzea". "Argi erakusten ari gara euskalgintzan ari garen guztiok prest gaudela, eta gogotsu, irakaspena barneratzeko eta praktikan mamitzeko", azpimarratu dute.

Adostutako adierazpena arratsaldean Bilboko Euskalduna Jauregian egingo den Euskararen Nazioarteko Egunaren ekitaldi ofizialean (arratsaldeko 19.00etan) irakurriko da, Iñigo Urkullu Lehendakaria bertan izango delarik. Azken urteetan bezala, adierazpenak balioa ematen dio euskalgintzaren eta erakundeen arteko elkarlanari, bai eta gizartearen atxikimenduari ere: "Jarduerak adostu ditugu. Diagnostikoak hurbildu ditugu. Ekimenak josi ditugu elkarrekin. Elkarrekin ebaluatu dugu egindakoa. Elkarrekin hobetuko dugu hobetu beharrekoa. Eta gizarteak erantzun sendoa eman du, onetsiz euskararen erabilera era iraunkor eta argian handiagotzeko estrategia eta molde berriak".

Horren adibide moduan, adierazpenak orain urtebete lehen aldiz egin eta urtebete barru errepikatuko den Euskaraldia ekimena aipatzen du: "Ezagutzen ez genuen modu batean aktibatu zituen iazko gizarte-ariketa arrakastatsuek euskal hiztunak, neurri batekoak nahiz bestekoak. Aktibatu zituen, baita ere, herri aginteak eta askotariko gizarte-erakundeak, ikuspegi berri batetik. Eta, batez ere, estrategiak eta diskurtsoak eraberritzeko joera eta prestasuna aktibatu zituen". Hala, hurrengo edizioa jartzen du jomugan: "Aldekotasuna, horrela, konpromiso eragingarri eta praktikoa bihurtzeko bidean jarri zen. Badator, hurbileko ostertzean, ekimen haren jarraipena. Euskaraldia berraktibatuko dugu, berriz ere denon arteko adostasun eta lankidetzan, eta hurrengo urteko Euskararen Nazioarteko Egunak izango du, ezinbestez, toki propioa ariketa sozial erraldoi horren ingurumarian".

Adierazpenak, aldiz, azpimarratzen du Euskaraldiaz harago bestelako bideak jorratu behar direla euskararen erabilera indartzeko: “Ugari dira berariazko lanketa eskatzen duten alorrak, eta horien guztien artean bada bat gizarte-bizitzaren gune-gunean dagoena: ekonomia, lana eta kontsumoa biltzen dituen arloa, hain zuzen ere, gizartearen eta herritarron bizitzaren motore nagusia baita”. Horrela, Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek, Gasteizko, Bilboko eta Donostiako udalek, EUDELeK eta UEMAK arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeak duen garrantzia nabarmendu dute, ez baitago “hizkuntza normalkuntzarik lanaren, ekonomiaren eta kontsumoaren munduan erro sakonik ez duenik”.

Adierazpena, azkenik, “etorkizunera begira” amaitu dute: “Azken batean, aldekotasun eraldatzailea da gure gizartea, euskal hiztunok eta euskaltzaleok aktibatuz, bideratzen ari dena. Bertan du euskarak etorkizuna. Bide eta praktika berrietatik datorren etorkizuna. Ongi etorri etorkizunera”.

2019KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA

Bide berriak, modu berriak

Ongi etorri etorkizunera!

Jauzika dator euskara. Jauzika mendez mende. Jauzika egunez egun. Bihotzetik bihotzera jauzika. Eta, batez ere, ezpainez ezpain jauzika.

Bere eguna du gaur euskarak, Nazioarteko Eguna hain zuzen ere. Baina ongi asko dakigu euskal herritarrok eta euskal hiztunok gaur ospatzen duguna ez dela egunaren mugetara errenditzen. Jauzi egiten du euskarak egunaren mugez gaindi ere. Jauzi egiten du euskarak muga guztiez gaindi, gure ahoan bizi-bizi, gure belarrietan zernahitarako prest beti. Noranahiko euskara gurea, denona.

Zer genuke, bestela, gaur ospatzeko?

Bide luzea egin du euskarak, eta harekin batera euskal hiztunok eta euskaltzaleok, etorkizuna irabazteko etengabeko ahaleginean. Bide luzea du egin euskal gizarteak euskara plaza guztietara duintasun osoz eramateko. Eta asko lortu da. Jardunak berak erakutsi digu, erakusten digu egunero, ezinbestekoa dela bide horiek, gauzak egiteko moduak, etengabe eguneratzea, eraberritzea, irudimenez biziagotzea. Eta argi erakusten ari gara euskalgintzan ari garen guztiok prest gaudela, eta gogotsu, irakaspena barneratzeko eta praktikan mamitzeko.

Jarduerak adostu ditugu. Diagnostikoak hurbildu ditugu. Ekimenak josi ditugu elkarrekin. Elkarrekin ebaluatu dugu egindakoa. Elkarrekin hobetuko dugu hobetu beharrekoa.

Eta gizarteak erantzun sendoa eman du, onetsiz euskararen erabilera era iraunkor eta argian handiagotzeko estrategia eta molde berriak.

Badugu, bai, zer ospaturik aurtengo Euskararen Nazioarteko Egun honetan ere.

Ezagutzen ez genuen modu batean aktibatu zituen iazko gizarte-ariketa arrakastatsuak euskal hiztunak, neurri batekoak nahiz bestekoak. Aktibatu zituen, baita ere, herri aginteak eta askotariko gizarte-erakundeak, ikuspegi berri batetik. Eta, batez ere, estrategiak eta diskurtsoak eraberritzeko joera eta prestasuna aktibatu zituen.

Aldekotasuna, horrela, konpromiso eragingarri eta praktikoa bihurtzeko bidean jarri zen.

Badator, hurbileko ostertzean, ekimen haren jarraipena. Euskaraldia berraktibatuko dugu, berriz ere denon arteko adostasun eta lankidetzan, eta hurrengo urteko Euskararen Nazioarteko Egunak izango du, ezinbestez, toki propioa ariketa sozial erraldoi horren ingurumarian.

Ez da, baina, horretara mugatzen euskararen erabilera areagotzeko eginahala. Ezin inola ere horretara mugatu. Alorrez alor landu beharra dago erabileraren landarea, sendo haz dadin.

Ugari dira berariazko lanketa eskatzen duten alorrak, eta horien guztien artean bada bat gizarte-bizitzaren gune-gunean dagoena: ekonomia, lana eta kontsumoa biltzen dituen arloa, hain zuzen ere, gizartearen eta herritarron bizitzaren motore nagusia baita.

Arlo sozioekonomikoak eta euskararen erabilerak elkarri egin behar dioten ekarriaren garrantzia ez da gutariko inorentzat ezezaguna. Bai baitakigu ez dela hizkuntza normalkuntzarik lanaren, ekonomiaren eta kontsumoaren munduan erro sakonik ez duenik.

Sendoak dira, alor horretan ere, eragile nagusiak egiten ari diren urratsak. Eta horietan lehena, zalantzarik gabe, euskararen erabilera askotariko erakundeen izaeraren ezaugarrien artean txertatzea dago.

Bide berriak, modu berriak, arlo sozioekonomikoan ere.

Estrategia berriak, beraz. Konpromiso berriak. Konpromisoari erantzuteko molde berriak. Praktika berriak.

Azken batean, aldekatasun eraldatzailea da gure gizartea, euskal hiztunok eta euskaltzaleok aktibatuz, bideratzen ari dena.

Bertan du euskarak etorkizuna.

Bide eta praktika berrietatik datorren etorkizuna.

Ongi etorri etorkizunera!

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL IVAP E IZENPE COLABORARÁN PARA LA IDENTIFICACIÓN ELECTRÓNICA DE LAS PERSONAS QUE PARTICIPEN EN LOS PROCESOS PÚBLICOS DE SELECCIÓN DE PERSONAL

- **El objetivo es agilizar y simplificar los trámites de las personas que se presenten a procesos selectivos**

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde al convenio de colaboración entre el IVAP (Instituto Vasco de Administración Pública) e Izenpe S.A. (Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa) para el despliegue de los medios de identificación electrónicos en los procesos selectivos para la provisión de puestos de trabajo. El objetivo es que los procesos de selección de personal que realizan las administraciones públicas a través del IVAP sean más ágiles y transparentes dando, así, respuesta a las necesidades de la sociedad que demanda la simplificación de los trámites administrativos.

El convenio incluye dos medios de identificación de las personas que optan a un proceso selectivo: una **contraseña temporal** o un certificado **BakQ**. El IVAP pedirá autorización, siempre, para comunicar los datos personales a Izenpe S.A. Mantendrá la confidencialidad de los datos personales y los tratará con la más absoluta seguridad. Además, no podrá difundir los datos personales a terceros y los destruirá una vez finalizado el encargo.

Según el convenio de colaboración, Izenpe S.A formará al personal encargado de la generación y comprobación de identidades digitales del IVAP y pondrá a su disposición el software necesario. Así el IVAP podrá verificar la identidad de las personas aspirantes en los procesos selectivos basándose en la eficiencia, calidad, seguridad y transparencia del proceso.

El convenio de colaboración entre el IVAP e Izenpe S.A. tiene una duración de 4 años, pero se podrá prorrogar o extinguir cuando las dos partes así lo acuerden.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

EL GOBIERNO VASCO DA LUZ VERDE AL PROYECTO DE LEY DE MOVILIDAD SOSTENIBLE Y LO TRASLADA AL PARLAMENTO VASCO PARA SU APROBACIÓN

El Gobierno Vasco ha dado luz verde al Proyecto de Ley de Movilidad Sostenible de Euskadi elaborado por el Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras. Arranca así una nueva fase, en la que se remitirá el texto al Parlamento para su aprobación.

La movilidad sostenible es un concepto nacido de la necesidad de dar respuesta a los problemas sociales y medioambientales surgidos por el uso masivo del vehículo privado e impulsado por la utilización de combustión de derivados del petróleo. Euskadi no parte de cero, pero sí necesita encontrar alternativas que ayuden a paliar los costes sociales, ambientales y económicos del modelo actual, y avanzar hacia una movilidad que se defina, precisamente, por la sostenibilidad.

